

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen 3. Udal Ordenantza Fiskalaren aldaketa jendaurrean jartzea

Udalbatzak, 2019ko urriaren 30ean egindako bilkuran, behin-behinean onartu zuen Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen 3. Udal Ordenantza Fiskalaren aldaketa.

Jakinarazten da erabaki hori, aurrekari guztiekin batera, jendaurrean egongo dela udaletxeko idazkaritzan, hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, ordenantza fiskalak aldatzeko erabakia behin betiko hartu dela ulertuko da, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 17-3 artikuluekin bat etorritz.

Amurrio, 2019ko azaroaren 4a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA